



Ikus-entzunezko rallya

Kameratoioia

#kameratoioia

Urriak 20–22 Lekeitio 2023

Eman izena urriak 18 baino lehen!

www.kameratoia.eus

- > 1.200 € sarietan
- > Doako soinu Masterclass-a
- > Doako gau bat Lekeitio lehenean 20 pertsonentzat

Antolatzaileak



46.

**EUSKAL
ZINE
BILERA**



Laguntzailea



LEHIAKETAKO OINARRIAK

PARTE-HARTZEA

1. Kameratoiaren XIX. edizioa **Lekeition ospatuko da urriaren 20tik 22ra**, Euskal Zine Bileraren jaialdiaren barruan.
2. Edozein nazionalitateko pertsona fisiko edo juridikok du lehiaketan parte-hartzeko aukera, betiere, **18 eta 26 urte (biak barne) bitarteko adina** baldin badu lehiaketak irauten duen epean.
3. Parte-hartzaile bakoitzak lehiaketara aurkez ditzakeen film laburren kopurua mugagabea da.
4. Talde parte-hartzaileek **gehienez ere 6 kide** izango dituzte.
5. Lehiaketan parte hartzeko ezinbestekoa izango da kameratoia.eus webgunean espreski prestatutako inprimakia bete eta parte hartuko duen taldearen aurkezpen bideoa bidaltzea (bideoaren esteka eskatuko da; bideoa aurretiaz plataforma digital batean argitaratu beharko da). **Aurkezpen bideoa**, gehienez **30 segundokoa** izango da.
6. Aurkezten diren **lehen 30 taldeek** izango dute lehiaketan parte hartzeko aukera.

DOAKO EGONALDIA

7. Izena ematen duten **lehen 20 parte-hartzailek** izango dute Lekeitioko Trinkete aterpetxean **urriaren 20ko gaua eta gosaria DOAN** izateko aukera izango dute.
8. Partaideek fidantza bat ordaindu beharko dute aurretiaz eta laburmetraia entregatu ostean dirua bueltatuko zaie. **Parte-hartzaileek lana entregatuko EZ balute, antolaketak EZ lioke inolako zenbatekorik bueltatuko.**
9. Antolaketak doako gaua izango duten parte-hartzaileei halaxe konfirmatuko die postaz. Mezu berean, egonaldiaren ordainketa egiteko prozedura azalduko zaie.

DATAK

10. **Izen-ematea:** irailaren 18tik urriaren 18ra bitartean www.kameratoia.eus webgunean.
11. **Formakuntza saioa:** urriaren 20an, arratsaldeko 18:00etan Lekeitioko kultur etxean. Doakoa da.
12. **Gaia eta ezaugarriak:** urriaren 20an, ostirala, arratsaldeko 19:30ean Lekeitioko kultur etxean argitaratuko dira lehendabizikoz. Ordubete beranduago, webgunean argitaratuko da.
13. **Lanen bidalketa:** urriaren 22an, eguerdiko 12:00etan bukatuko da parte-hartzaileek lanak entregatzeko epea. Lanak wetransfer bidez entregatu behar dira hurrengo helbidera: vanesa@topagunea.eus

14. Lanen emanaldia: **urriaren 22an arratsaldeko 16:30ean** aurkeztutako lan guztiak ikusteko aukera izango da Ikusgarri Zineman. **Taldeko ordezkari bat** izan behar da gutxienez. Horrela ez bada, saria puntu gehien duen hurrengo taldeari emango zaio.
15. Irabazleen ebazpena eta sari banaketa: **urriaren 22an** izango da Ikusgarri aretoan lan guztiak aurkeztu ondoren. Bertan, epaileek beren balorazioak emango dituzte ezagutzera eta 2023ko Kameratoiaren irabazleak iragarriko dituzte. Publikoak ere izango du gustukoen duen lana bozkatzeko aukera.

LANAK AURKEZTEKO GIDA

16. Film laburrek gehienez ere **3 minutu eta erdiko** iraupena izango dute. Denbora muga hori gaindituz gero, film labur hori deskalifikatuta egongo da zuzenean eta ez du inolako saririk eramango.
17. Film laburrek **Kameratoiko kareta** izan behar dute txertatuta filmaren hasieran, pantaila osoan. Ezinbestekoa da kareta hori 3 segundutan zehar mantentzea bideoan. 3 segundu horiek ez dira filmearen iraupenaren parte izango. KARETA hori Kameratoia.eus webgunean izango dira eskuragarri.
18. Lanak **1920×1080 px formatuan** entregatuko dira.
19. **Lekeitioko bi leku enblematiko agertu behar dira** derrigorrez. Baldintza hau betetzen ez bada, laburmetraia lehiaketatik kanpo geldituko da eta ez du inolako saririk eramango.
20. Ezaugarri multzo bakoitzetik (ezaugarri orokorrak eta teknikoak) bi aukeratu behar dira eta filmean txertatu behar dira modu koherente batean, txertatu ezean, laburmetraia lehiaketatik kanpo geldituko da.
21. Filmak **euskara hutsean** izan behar dute eta beste hizkuntzarik egongo balitz, euskarazko azpтитuluak izan beharko ditu. Bestelako hizkuntzen erabilera istorioan ondo justifikatuta egon beharko da.
22. Film laburrek **originalak eta inoiz argitaratu gabeak** izan behar dute. Hurrengo baldintza hauek beteko ez balira, filmea zuzenean lehiaketatik kanpo geldituko litzateke:
 - Ez dira aurretik bestelako euskarri, lehiaketa edo jaialditan aurkeztutako lanak onartuko.
 - Ez dira lehiaketa honen aurretik egindako beste film labur baten bertsio laburtu edo luzatuak diren lanak onartuko.
 - Parte-hartzaileek Kameratoiak iraun bitartean (sari banaketa igaro arte) laburmetraia inongo euskarritan edota erakusketa publikoan ez argitaratu/erakusteko konpromezua hartzen dute. Hala ez balitz, antolaketak lana zuzenean lehiaketatik kanpo uzteko eskubidea izango luke.
23. Laburmetraiak **wetransfer** bidez bidaliko dira vanesa@topagunea.eus helbidera. Filmearekin batera, bidalketan laburreko **fotograma** baten irudia bidali behar da, formatu horizontalean.
24. Honako hauek dira sariak:

- 1. Saria: 800€ko saria* eta [Demasa](#) lehiaketan sartuko da.
- 2. saria: 350€ko saria* [Demasa](#) lehiaketan sartuko da.
- Publikoaren saria: talde irabazlearentzako (kide guztientzako) streaming plataforma baterako hilebeteko sarbidea.

(*) dagokion atxikipena aplikatuko zaio.

LEGE OHARRAK

25. Antolakuntzak lehiaketan zehaztutako irizpide tekniko, artistiko eta /edo legalak betetzen ez dituzten lanak lehiaketatik kanpo uzteko eskubidea gordetzen du. Era berean, antolakuntzak arrazista, berdintasunaren aurkakoa edo gustu txarrekoa den edo ikuslegoaren sentsibilitatea irain lezakeen gai zein irudirik duen edozein lan baliogabetzeko eskubidea gordetzen du.
26. Parte hartzaileek filmean ageri diren bestelako sormen lanen egile eskubideak urratzen ez direla bermatzen dute eta horiek erabiltzeko beharrezko baimen eta lagapenak dituztela.
27. Antolakuntzak ez du lehiaketara aurkeztutako filme eta horien edukiaren gaineko legezko erantzukizunik izango.
28. Talde parte-hartzaileak epaimahaiaren erabakia argitaratu ondoren segituan jaialdiak bere film laburra erakusten jarraitzea nahi ez badu, antolakuntzan jakinarazi beharko du. Une horretatik aurrera, erakundeak 30 laneguneko epea izango du goian aipatu ditugun eskubideen eskualdaketa ez-esklusiboa baliogabetzeko.
29. Lehiaketan izena ematearekin batera, talde parte-hartzaileek baimena ematen diote kameratoia.eus eta zinebilera.eus-i lehiaketan partekaturiko informazio, irudi eta euskarri oro erabiltzeko, zuzenean edo zeharka, ikus-entzunezko lanen sustapen eta komunikazio ekintzak burutzeko. Eskubide horien erabilera jaialdiaren promozio eta informazio helburuetarako izango da soilik
30. Antolatzzaileek ez dute erantzukizunik izango haien esku ez dagoen kanpo zerbitzu baten hutsegite edo ez ohiko egoera batek eragindako galeretan.
31. Oinarrien ulermenean zalantzarik balego, Euskaltzaleen Topaguneari dagokio erabakitzea. Era berean, zehaztutako puntuetan aldaketak egitea beharrezkoa izanez gero, antolatzzaileek horiek egiteko eskubidea izango dute, baldin eta justifikatuta badaude eta / edo parte-hartzaileei kalterik egiten ez badie eta aldeztu aurretik behar bezala jakinarazten baldin badira.

Lehiaketa honetan parte hartzeak arau hauen erabateko onarpena dakar. Antolaketa Batzordeak bere gain hartzen du oinarri hauetan aipatzen ez diren salbuespeneko erabakiak hartzeko eskubidea.